

## BANDOA

### Koronabirus Covid-19 saihesteko prebentzio-neurriak

Osakidetzak emandako gomendioei jarraituz eta osasun zerbitzuen saturazioa ekiditeko asmoz, Udalak zerbitzu hauek erabat ixtea erabaki du martxoaren 13tik aurrera, hurrengo 15 egunetarako:

Bekobenta eskola eta Haurreskola, Beti Jai jubilatuen elkartea, Musika Eskola, herri biblioteka, udal pilotalekua, gaztelekua, Izarbidean elkartearen topagunea, AEK, kiroldegia, Barroeta futbol Zelaia, Esperantza aretoa, kultur aretoa (EPA eta zinea), ikasgela, ludoteka, eta arte eskola.

Udalak eta Uhagon kultur elkarteak antolatutako ekintza eta ikastaro guztiak bertan behera geldituko dira.

Udalaren administrazioko oinarrizko zerbitzuak martxan jarraituko duten arren, tramiteak telefonoz (946 167 454) eta emailaz ([udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)) egitea gomendatzen da.

Udalak eskuak garbitzea, aglomerazioak ekiditzea eta sintomaren bat izanez gero 900.20.30.50 telefonora deitzea gomendatzen du (112 telefonoa ez erabili).

Udalak, uneoro, hartutako neurrien berri ematen jarraituko du eta herritarrak erantzukizunez jokatu dezaten eskatzen du.

Markina-Xemeinen, 2020ko martxoaren 13an.

**Alkatea**



markina-xemein  
udala